

Deialdia

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua Oñatiko Udaleko kultura Sailak antolatzen duen Haurren Pintura ikastaroan irakasle lanetan aritzeko izen-emate deialdia irekitzea da.

Haurren Pintura ikastaroak 6-12 urte (LH 1- 6)/ 13-16 urte (DBH 1-4) eta 17-18 urte (Batxilergoa 1 - 2) bitarteko adina duten haur, gaztetxo eta gazteei zuzenduak dira.

2. Eskabideak aurkezteko baldintzak.

Izen emateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

Titulazioa

- Arte Ederretako gradua edo/eta erdi mailako unibertsitate titulua izatea.

Euskara

- Hirugarren hizkuntza eskakizunaren pareko euskara maila izatea. EGA.

Prestakuntza Ikastaroak

- Hezkuntza ez arautuko (marrazketa, margoketa, edo/eta artearekin loturikoak) prestakuntza ikastaroak, aintzakotzat hartuko dira.

Lan- esperientzia

- Artearen inguruan irakasle lanak eginga izatea baloratuko da.
- Arte Udalekuetan begirale gisa esperientzia izatea baloratuko da.

3. Eskabideak aurkeztea.

Epea: 2025eko martxoaren 31tik apirilaren 13ra, biak barne.

Non: Oñatiko Udala, Kultura Saila. Kultur etxea, Santa Marina plaza. 943.78.03.53.

kultura.idazkaritza@onati.eus

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Kurrikuluma.
- Deialdi honetan pertsona naturalek - profesional edo/eta autonomoek - parte hartu ahal izango dute.

Oharra:

Hautagaiak, izena emateko baldintzak betetzen dituen agiriak egiaztatzeaz gain, jarduteko gaitasuna eta ahalmena duela egiaztatu beharko du:

-Nortasun Agiria eta jarduera ekonomikoen zergaren gainean alta emateko prest egotea.

-Haurtzaroa eta Nerabezaroaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2025 legeko 8.artikuluaren arabera, sexu- delituen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

5. Irakaslearen funtzioak:

- Adin tarte bakoitzari egokituriko pintura ikastaroak zein beharrezko materialak prestatu eta ematea.
- Ikasleen garapen egokia zaintzea, jarraipena egitea.
- Irakaslearen esku jartzen diren instalazioak eta baliabideak zaintzea.
- Udaleko Kultura Sailarekin lankidetzan aritzea, pintura edo/eta arte gaietan aholkua emateko eta ikasleen jarraipena egiteko.
- Ikasleek egindako lanak zabaltzeko jarduera (erakusketa) prestatzea.
- Ikasturte amaieran, ikastaroari buruzko ebaluazio txostena gauzatzea, hobekuntzak proposatuz.

6. Egutegia eta ordutegia.**Egutegia.**

Haurren pintura ikastaroko zerbitzuaren egutegia, oro har, azarotik ekainera bitartekoa izango da. Oñatiko Udaleko Kultura Sailak finkatuko du egutegia.

Ikastaroetako ordutegia honako hau izango da:

- Asteazkenak: 18:30-20:00.
- Ostegunak: 17:00-18:30/ 18:30-20:00.
- Ostiralak: 15:30-17:00/ 17:00-18:30/18:30-20:00.